

Jokin Alegriaren margoerakusketa Altsasun ikusgai



Kultura >> 14

Sakanako pilota txapelketako finalak jokatuko dira larunbatean Altsasuko Burunda pilotalekuan eta Iñigo Aritzia ikastolan



Kirola >> 11

20.768 sakandar

10.713 gizonetzko (%51,58), 2011n baino 19 gutxiago; eta 10.055 emakumezko (%48,41), 11 gehiago

Sakanako 15 udalerrietatik zazpitan populazio hazkundera izan zen eta gainontzeko 8etan jaitsi zen

>> 5



Krosa etzi Altsasun

10:00etatik aurrera haurrak, 12:45ean emakumezkoak eta 13:15ean gizonetzkoak

>> 12



Abenduaren 28an bildu ziren langileak eta plataforma sortu zuten. ARTXIBOA

Udal gehienek abenduan estra ordaindu diete langileei

>> 3

Inasako langileak, eskubideen defentsan

>> 9

Arakilgo aurrekontua, enplegua sustatzeko

>> 5



Altsasuko eskolania eta Tik Tara zuzenean >> 15



Marin, 26 egun gose greban porlandegiko atean >> 9



Sakana optika

2. betaurrekoa DOANI!

Progresiboetan ere bai

Eskaintza: Urtarrilaren 31ra arte. Ez dira bateragarriak beste eskaintza batzuekin.

optikasakana@gmail.com · 948 563 124 · Iortia Plaza 11 · ALTSASU

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumninioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Jasone Auzmendi
Super gometxen partetik, ZORIONAK Jasone!! Bikaina zarelako eta merezi duzualako!!



Jasone eta Ainhoa
ZORIONAK bikote!! Zuen lagunaren partez.



Ainhoa Cartagena
ZORIONAK Ainhoa!! Espero dugu oso ongi pasatzea zure urtebetetzean eta muxu asko familia guztiaren partez.



Maider
ZORIONAK Maider, gure printzesa!! 5 urte dagoeneko!! Etxeko guztien partez, muxu handi bat. Izugarri maite zaitugu!!



Unai
ZORIONAK, Unai!! Bi urte egin dituzu. Zure familiaren partetik, bereziki Mikel eta Luke-nen partetik.



Amona Primi
Amona zoragarriaren bere 90. urtebetetzean muxu handi bat familia guztiaren partez. ZORIONAK!!



Josu Saenz de Arzamendi Irigoien
ZORIONAK eta muxu pila bat zure 6. urtebetetzean, aita, ama eta Arabako familiaren partetik.



Josu
Urdaingo familiaren partetik, besarkada handi bat eta muxu bat aitona eta amonaren partetik.



Julene eta Osane
ZORIONAK bikote eder honi. Ongi pasa zuen eguna. Ea bizkotxo puxka bat heltzen zaigun. Besarkada bat Jon, ama eta aitaren partez.

ilbeltzak

11-17

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net



TIK TARA

Musika

Tik tara & musika eskolako eskolania. Ilbeltzaren 12an, larunbatean, 20:30ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Zinema

Barrura begiratzeko leihoak. Ilbeltzaren 11n, ostiralean, 20:00etan Irurtzango kultur etxean.

Zuloak. Ilbeltzaren 11n, ostiralean, 21:45ean, eta ilbeltzaren 13an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

El profesor. Ilbeltzaren 11n, ostiralean, 22:00etan, eta ilbeltzaren 13an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Mendi irteera

Balankaleku. Ilbeltzaren 13an, domekan, Altsasuko Mendigoizaleak elkartearen egoitzatik.

Txirrindula irteerak

Larregoiko. Ilbeltzaren 13an, domekan, 8:30ean Altsasuko

Zumalakarregi plazatik eta 9:50ean Bioitza kanpinetik. 59 km. **Burunda Mendi Bizikleta taldea.**

Erakusketak

Jokin Alegria. Ilbeltzaren 19ra arte, astez 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean.

Hitzaldiak

Pobrezia eta gazteria. Ilbeltzaren 11n, ostiralean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. Hizlariak: Nafarroako Gazte Kontseilua.

Energia eredu berri baterantz. Energia berriztagarrien kontsumo kooperatibak. Ilbeltzaren 17an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Energia gara eta Goiener.**

Tailerrak

Euskal sukaldaritza. Ilbeltzaren 12an, larunbatean, arratsaldean, Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Gure seme-alabekin egoera zailak

nola kudeatu. Ilbeltzaren 15ean, 22an eta 29an, asteartean, 15:00etatik 16:30era Uharte Arakilgo udaletxean. **Gizarte zerbitzuak.**

Lehen sorospenak II. Patologiak haurtzaroan. Ilbeltzaren 15ean, asteartean 16:30ean Altsasuko Txioka haur ikastolan. **Hizlaria: Mercedes Fernandez. Izena eman aurretik.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 11n, ostiralean, 20:00etan, Irurtzango, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Etxarriko odol-emileen festa. Ilbeltzaren 13an, igandean, 13:00etan Etxarri Aranazko Iturri Eder tabernan. Domina banaketa.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 13an, domekan, 20:00etan, Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Ilbeltzaren 14an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

107.3 FM
beleixe online
edo ubhinbak aplikazioaren bitartez
www.guaixe.net

Ostiralero 9:30etik 10:30era **SAIOA**

Asteburuko agenda

Asteko errepasoa: albisteak, kirolak,
Jokin Alegriaren erakusketa, Altsasuko kintoak...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratia!

ATZERRIAN PRAKTIKAK EGINDA: Duela 3 aste bueltatu ziren Malta eta Italiatik Lanbide Heziketa institutuan ikasketak egin dituzten bi ikasle. Soldadura eta galdara-

gintza eta mantenuko ikasketak eta praktikak hemen egin ondoren, gobernuak lagunduta atzerrian 3 hilabetez aritu dira.

ezkaatza >>

SAKANA

Nafarroako biztanleriaren erdiak toki argitalpenak irakurtzen ditu

Guaixe astekaria laugarren irakurriena da, CIES ikerketaren arabera

Nafarroako Gobernuak toki argitalpenen irakurleak aztertzeke bosgarren txostena argitaratu du. CIES enpresak inkesta bidez egin du ikerlana. Ikerketak dio 14 urte-tik gorako nafarren %50,4k toki-ko argitalpenak irakurtzen ditue-

la. Nafarroan 31 argitalpen egiten dira: zazpi astekari, Guaixe barne; hiru hamaboskari; hamabost hilabetekari, eta sei maiztasun ezberdineko argitalpenak. Hiru argitalpen desagertu dira Nafarroan 2012. urtean.

Ikerketaren arabera 73.000 nafarrek irakurtzen dituzte astekariak (biztanleriaren %13,3). 2011ko datuak konparatuz gero 12.000 pertsonen (biztanleriaren %15,5) utzi

diote astekariak irakurtzeari. Hilabetekarien irakurleen kopurua 142.000 da (biztanleriaren %25,9). Hamaboskariak 53.000 pertsonen irakurtzen dituzte; eta maiztasun ezberdineko argitalpenak 104.000 pertsonen irakurtzen dituzte. Nafarrek tokiko argitalpen bat baino gehiago irakurtzen dutela egiaztatu dute.

Euskaraz idazten den lehenengo aldizkari irakurriena da Guai-



Jendea Altsasuko azokan. ARTXIBOA

xe, baita bakarra ere. Ikerketak dio 14.000 irakurle dituela. Nafarroan egindako astekari irakurriena Plaza Nueva Tuterako aldizkaria da 19.000 irakurleekin. Laugarren

lekuan Guaixe dago. 2011ko datuekin konparatuz, nahiz eta astekariaren irakurleen kopurua jaitsi den, Sakanako astekariaren irakurleak mantendu dira.



Irurtzungo eta Arakilgo udaletxeak.

Udal gehienek estra ordaindu dute


Kapitalismoaren ekonomia krisiari aurre egiteko gobernuak hainbat arlotan murrizketak egin dituzte. Langile publikoek aurretik haien soldatak murrizten ikusi zituzten, eta pasa den urtean Espainiako Gobernuak abenduko estra kentzea erabaki zuen. Irabazien %7.

Espainiako neurri horri aurre egiteko eta langile publiko nafarrek dagokiena kobratu ahal izateko Nafarroako Parlamentuan gehiengoak bestelako neurri bat hartzea erabaki zuen: langile publikoek soldataren osagarria ematea, galdu duten erosmen ahalmena berdintzeko. Abenduan hartu zen erabaki hori foru parlamentuan, baina Nafarroako Gobernuak ez du ilbeltzaren 2ra arte publikatu eta foru administratiboko langileek abenduko estra galdu dute (2015ean berreskuratuko omen dute). Horren ordez, garilekoa orain kobratu dute.

Sakanan Nafarroako Parlamentuak onartutakoari segituz, udal gehienek euren langileei abenduan osagarri bat ordaindu diete. Hala egin dute Irurtzunen, Lakuntzan, Arbizun, Etxarri Aranzaten, Bakaikun, Iturmendin, Urdiainen, Altsasun, Olatzagutian eta Ziordian. Arakilen ere udal langileek dagokien estra jaso dute, ohi bezala, inolako erabaki

berezirik hartu gabe. Horretarako, Migel Izuk prestatutako txosten bat izan dute oinarri Arakilen. Haren arabera, indarrean dagoen legedia besterik ez da egiten estra ordaintzean.

Uharte Arakilen parlamentuak onartutako osagarria ordaintzeko asmoa zuten. Baina epea luzatu egin zitzaion eta pasa den urtean ordaindu ezin izan zuten, osagarria pagatu gabe gelditu da. Ergoienan, berriz, abenduko estra galdu dute udal langileek. Irañetak eta Arruazuk, azkenik, ez dute udal langilerik eta ez dute halako ordainketarik egin behar izan.



BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN AMETSAK.

“LANERAKO GAITASUNETAN TREBATZEKO, TALDE-LANEAN ETA PROIEKTUEN BITARTEZ IKASTEN DUGU.”

Unai Olaeta, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako 3.mailako ikaslea.



PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

GOIERRI • **URTARRILAK 24** osteguna, 17:30

ARRASATE • **OTSAILAK 2** larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI • **OTSAILAK 2** larunbata, 11:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORIATZA • **OTSAILAK 2** larunbata, 11:00

ARETXABAETA • **OTSAILAK 2** larunbata, 11:00

ARETO NAGUSIAN

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI ↓

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



GURASOENDAKO TAILERRA UHARTEN: Ilbeltzaren 15ean, 22an eta 29an, asteartetan, 15:00etatik 16:30era Uharteko Arakilgo udaletxean. Gizarte Zerbitzuek guraso-

ei zuzendutako tailerra antolatuko dute. Gure seme-alabekin egoera zailak nola kudeatzea gaia hartuta ariko dira tailerrean gurasoak.

sakanerria >>

SAKANA

8 sakandar gutxiago

2012KO HASIERAN 20.768 SAKANDAR GINEN

Herria	2012-01-01			2011-01-01			Aldea	
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Kopurua	%
Arakil	952	499	453	956	511	445	-4	-0,41
Irurtzun	2.302	1.205	1.097	2.279	1.182	1.097	23	1
Irañeta	166	97	69	160	93	67	6	3,75
Uharteko Arakil	827	446	381	836	450	386	-9	-1,07
Arruazu	114	62	52	112	63	49	2	1,78
Lakuntza	1.252	654	598	1.237	644	593	15	1,21
Arbizu	1.093	564	529	1.082	561	521	11	0,92
Ergoiena	405	218	187	422	224	198	-17	-4,02
Etxarri Aranatz	2.487	1.293	1.194	2.485	1.295	1.190	2	0,08
Bakaiku	333	183	150	340	186	154	-7	-2,05
Iturmendi	390	198	192	403	206	197	-13	-3,22
Urdiain	700	371	329	714	378	336	-14	-1,96
Altsasu	7.691	3.887	3.804	7.655	3.870	3.785	36	0,47
Olatzagutia	1.662	853	809	1.696	885	811	-34	-2
Ziordia	394	183	211	399	184	215	-5	-1,25
Guztira	20.768	10.713	10.055	20.776	10.732	10.044	-8	-0,03

Bigarren urtez segidan populazioa galdu du Sakanak. Hala adierazten du Espainiako Estatistika Institutuak. Pasa den urteko aurreneko egunean urte bat lehenago baino 8 sakandar gutxiago bizi ginen ibarrean (aurreko urtean 29 pertsona gutxiago izan ziren). Hala ere, Sakanak 2005ean lortu zuen 20.000 biztanleren langarengainetik segitzen du. Generoari erreparatuta 10.713 gizonetako daude (%51,58, 19 gutxiago) eta 10.055 emakumetzko (%48,41, 11 gehiago). Ziordian ez beste herri guztietan gizonetakoak gehiago dira.

Herriak

Sakanako 15 udalerrietatik zazpitan populazio hazkundera izan zen:

Irañeta, Arruazu, Lakuntza, Irurtzun, Arbizu, Altsasu eta Etxarri Aranatz (hazkundera ehunekoaren arabera ordenatuta). Zortzi udalerrian egin zuen behera biztanleriak: Ergoiena, Iturmendi, Bakaiku, Olatzagutia, Urdiain, Ziordia, Uharteko Arakil eta Arakil (jaitsiera ehunekoaren arabera ordenatuta).

644.566 nafar

2011. urte hasieran baino 2.515 nafar gehiago bizi ziren 2012 urtea mustutzerakoan. 323.113 emakumetzko eta 321.453 gizonetako ginen urte hasieran.

Arakil

Enplegu plana du udal aurrekontuak

658.830 euroko aurrekontu onartu du Arakilgo Udalak 2013rako. Dirutza horretatik 70.000 bideratuko ditu enplegu planera. Lau ardatz ditu enplegu plan horrek. Haietako bat kontratazioa da. 8 pertsona 6 hilabeterako kontratatuko ditu Arakilgo Udalak. Haien egitekoak: hurbiltasun eta arnasaldi zerbitzuan aritzea, kultura dinamizazioa, zerbitzu anitzak (lan txikiak) eta udalen enplegu lanaren barruan aurreikusitako lanak egitea.

Bestetik, Irurtzongo Udalaren batera, lan arloa suspertzeko lan ildo jarriko da martxan (langabetuen poltsa, enpresei haren berri eman, ekintzaileei mikro-kredituak eman, langabeak kontratatzen dituztenei laguntzak eta etxebizitza berritu, irisgarritasun eta energia ordenantzak). Enplegu planeko 3. ardatza prestakun-



Pasa den urte akaberan Etxarrengo frontoi irekiko zorua berritu zuten.

tza izanen da. Beste eragileekin batera, langabetuendako eskaintza egiten da, Sakanako enplegu tailerraren eskaintzarekin batera.

Azkenik, Gobernuaren laguntzarekin obra publikoa sustatu nahi du Arakilgo Udalak. Horien artean daude: Satrustegiko sareak eta zorua berritzeko aurrene-

ko faserako 200.000 euro bideratuko ditu (%70eko diru-laguntza jasotzea espero du udalak); ibilbide sarea eta Hiriberriko erabilera anitzeko gela.

Ibilbide sarea

2012an Aizpea inguruan 4,1 km-ko ibilbide sarea egin zen. Sare hori

pixkanaka Arakil guztira zabaldu nahi du udalak. Horregatik, aurreko bide-sarea zabaltzeko bi proiektu landuko dira: Egiarreta eta Hiriberri lotuko dituen (1.000 euro) eta Aixitarako bidea (2.000 euro). Egitasmoa 10.000 eurokoa da, Cederna-Garalurrek eta Irurtzongo Udalak osatuko dutena). Aizpea

inguruko bide sarea Irurtzongo bideekin lotuta dago. Aurreko sarea hori Plazaola turismo partzuergoaren arrantzaleen sendarekin lotuko da. Egitasmo hori egiteko 85.000 euro bideratuko ditu udalak (72.250 euroko gobernuaren eta Irurtzongo Udalaren laguntza).



Bazkide zozketa



ILBELTZKO SARIA:
3 LIBURUREKIN OSATUTAKO 4 LOTE



LARKA

ALTSASU

60€tatik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

LASTAI GASOLINDEGIA

ALTSASU

0,04€-ko deskontua litroko, erregai guztietan.

FORD GABIRONDO

ALTSASU

Olioaldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua

Non erabili

Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrrenda osoa ikusgai

lan mota guztietako eskulanean.

PATXI GALARZA

IRURTZUN

% 5-eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100€rengatik txistorra opari.

JM AGIRRE HARATEGIA

LAKUNTZA

50€-ko erosketarekin gero etxeko produktua opari.

DANTZALEKU TABERNA

ALTSASU

Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan.

KAXETA

ETXARRI

% 5-eko deskontua irakurketako liburuetan.

KATE INFORMATIKA

IRURTZUN

% 5-eko deskontua 30-tatik gorako erosketan.

» Uharte Arakil

Udalak ikur frankistak kentzeko eskatu du

Uharte Arakilgo Udalak Toki Administrazioaren Departamentuari eta Gobernuaren Ordezkaritzari eskatu die "lehenbailehen abia dezatela gure herritik frankismoaren ikur guztiak kentzeko prozedura baita Nafarroako herri eta administrazio guztietan daudenak ere, Diputazioaren eraikinean dauden ikurrak barne".

Eskaerarekin batera udalak txostena bidali die bi administrazioei, herrian dauden ikur frankisten berri emanez. Esaterako, hainbat etxeen fatxadetan "Instituto Nacional de la Vivienda"k jarritako plakak. Bilduren aldeko eta PPren abstentzioarekin onar-

tu zen mozioan udalaren zerbitzu juridikoei eskatu zaie frankismoaren ikurrak kentzeko egin beharreko urratsak ematen has daitezela. Aldi berean, uhartearrei eta herriko eragileei dei egin zaie ekimena lagundu eta ikur frankisten kokapenaren berri emateko.

Bilduk aurkeztutako mozioak Ikurren Legea eta Oroimen Historikoaren Legea ditu oinarri. Koalizioak gogora ekarri du "frankismo kriminalak eta bere arduradunek eduki duen zigorgabetasun osoa". Horregatik, "deigarria" zaie "zenbait administrazio publikok hainbesteko grina erakustea zenbait artikulu betearazteko garaian".

» Arbizu / Etxarri Aranatz

Pintaketak ezabatzeko eskatu dio ordezkariak gobernuari

Hilabeteko epea eman zien Espainiako Gobernu Ordezkaritzak Arbizuko eta Etxarriko udalei "terrorismoari goraipamena eta gorazarre egiten dioten pintadak, kartelak edo pankartak" kentzeko, "haiek erakutsiz biktimak mespretxatzen eta makurrarazten baitira". Epea pasatuta, Guardia Civilaren txosten batean oinarrituta, Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzatik adierazi dute pintadak kendu ez direnez, Nafarroako Gobernuari jakinarazi diola, hark pintadak kendu eta gero gastua

udalei kobratzeko.

Aipatu txostenaren arabera, Arbizun 3 pintada kendu gabe daude. Udalak haiek dauden jabeek eskakizunaren berri eman die idatziz. Etxarri, berriz, udaletxekoa kendu bada ere, errotonda ondoko murala kentzea falta dela dio. Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzak eta gobernua sinatu duten lankidetzaren protokoloa indarrean jarri denetik Sakanako hirugarren udal bati ere eskatu diote halako pintadak kentzea: Iturmendikoari, edukiontzia hori batean dagoen bat.

SAKANA



Diru-laguntzak ematen duenaren pareko zerbitzua

Horixe emanen du DYAK. Elkartek Nafarroako Larrialdi Agentziarekin lankidetzara hitzarmena dauka. Horren arabera istripuengatik, gaixotasunengatik eta bestelakoengatik jendearen presazko ambulanziaz garraioak egiten ditu. Horretarako langileak kontratatuak ditu. Pasa den urtean 6.428 izan ziren, haietatik 85 Sakanatik.

DYAK urte hasieran erabaki zuen agentziaren deiei ez erantzutea, egungo egoeran diru-laguntzarik gabe lan egitera ezin zuelako arriskatu. Neurri hori gaur bertan gelditu da indarririk gabe eta herrietako eta Iruñeko SAMU ambulanziaz deiak erantzuten dituzte.

Aldeak harremanetan egon dira eta segituko dute. Gobernuak DYAKi 196.000 euro ematea aurreikusten du (240.000 2012an eta 376.000 euro 2011n). Horrek DYAK aurreko herrietako ambulanzien sarea eta Iruñeko medikudun ambulanziaz mantentzeko aukera luke. Baina Iruñeko plantillan murrizketak eginez.

25 BAT

Hori da elkartek ibarrean duen boluntario kopurua. Egoitza Altsasuko Bakea kalean du.

» Altsasu

Sunsundeguin espekulazio ugari gaurko bileraren atarian

Egitura atala geldiarazi zuen Sodenak, 3 autobus katera sartu gabe utzita

Enpresa batzordea eta Sodenako ordezkariak gaur eguerdian bilduko dira Iruñean. Langileen ordezkariak ez dakite zer esanzen dieten bilera horretan, baina herenegun Sodenak emandako agindua espekulazioak haizatu ditulantegian. Izan ere, ibilgailu gehiago ez egiteko eta daudenak bukatzeko agindua eman zuen Sodenak enpresa publikoak. Zuzendaritzak horren berri abenduaren 26tik zuen, enpresa batzordeak ez.

LAB sindikatuak salatu du Nafarroako Gobernuak lanak gelditzeko agindua emanduela. "Sodena enpresan sartu zenetik ez dira gai izan egiturazko arazoak konpontzeko. Honen adibide garbia da azken hilabeteetan hilero 1500 ordu estrasartu direla eta, aldi berean, ERE bat tramitatu nahi izan dutela %25eko langabezia tasa duen eskualdean". Sodenak bere kudeaketa itxiera mehatxuan eta xantaian oinarritu duela salatu du LABek. Erabaki horren atzean Sunsundegui enpresaren jokoan dagoela uste du sindikatu abertzaleak. Azkenik, LABek inbertsioak eta inplikazio erreala bat eskatu dizkio gobernari.

Bestetik, ELAK gaur, 17:00etan, langileen batzarra deitu du. UGTk, bileran esandakoa baloratu eta egin daitekeena ongi aztertzea nahiago du, horregatik batzarra astelehenean egitearen aldekoa da.

SAKANA

Autopistaren prezioa igo da

Nafarroako Autopistatik (AP-15) bidaiatzea garestiagoa izango da, izan ere, Sarasako bidesariaren prezioa igo da 2012ko KPIren igoera oinarri hartuta. Audenasak %3,325eko igoera aplikatu du. Beraz, Sakanatik Iruñera joateko 2,15 euro ordaindu beharko da autoen kasuan, eta 2,75 eta 3,75 kamioien kasuan. Txarteletan edo telepeajearekin ordaintzen dutenek, aldiz, deskontua aplikatuko zaie, eta prezioak honakoak izango dira: 1,22 edo 0,65 (itzulera doan) kotxeen kasuan; eta 1,15 pisuzko ibilgailuen kasuan.

» CANen gertatutakoa ikertzeko eskaera bulegoetan

Nafarroako Kutxa desagertu izana salatu, gertatutakoa ikertzeko eta erantzukizunak argitu eta errudunak zigortzeko eskaera egin zuen ezker abertzaleak. Abenduaren 29an izan zen Kutxaren ibarreko bulegoen parean. UPNri eta PSNri dei egin zien ezker abertzaleak kutxari buruzko ikerketa galaraz ez dezaten.

Irurtzunen 30 pertsona bildu ziren eta txorizoak banatu zituzten. Uhartarakilen 14 bildu ziren, txorizoda egiteaz gain bulegoa sinboliko ki prezintatu dute. Arbizun 25 izan ziren bildu zirenak. Etxarri 30 eta txorizo jatea egin zuten. Olatzagutian, aldiz 10.

Sorgiñak
taberna
LAKUNTZA
948 576 357

IHESLARIAK
ETXERRA
BILTOKI
taberna
tel. 948 467 876 Altsasu

2x1
TxikiTxiki
haurren arropa eta lentzeria
948 46 73 08
Ferialeku 2 - ALTSASU

GANUZA SUKALDEAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK
Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Elektragailuak
GANUZA GARANTIAREKIN
Tel.: 948 460 203
faxa: 948 460 673
Etxarriko industrialdea
ETXARRI-ARANATZ

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisauak
Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

nerea cenoz
nutrición
Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomatu (Nafarroako Unibersitatea)
info@nereacenoz.com
nereacenoz.com
Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan
Estafeta 16, atzea · LAKUNTZA (Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:
· Argaltzeko dietak
· Pisua hartzeko dietak
· Mantenimendu dietak
· Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak
Kirol-elikadura
Elikadura arazoak
Nutrizio-hezkuntza

kulki
umeentzako kultur kirolak
Tel. 948 552 171
www.kulki.org

SAKANA

Elektrizitatea kontsumitzeko bide alternatiboak badaudelako

Ilbeltzaren 17an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean hitzaldia

Gaur egun merkatu elektrikoaren komertzializazioa liberalizatu bada ere, kontrola hiru oligopolioen esku dago: Iberdrola, Endesa eta Gas Natural-Fenosa. Azken urteotan, baina, merkatu elektriko horren kritika egin eta oligopolioen aurrean beste aukera batzuk zabaldu dira: energia merkaturatzen duten energia kooperatibak.

Sakanako Garapen Agentziak

eta Sakantzen Sareak energia sorkuntza eta kontsumoaren inguruko hausnarketa bultzatu nahi dute. Horregatik antolatutako hitzaldia. Haren bidez merkatu elektrikoaren egoeraren berri eman eta energia elektrikoaren erosteko dauden bide alternatiboak azalduko dira. Elikagaien jatorriarekin eta kalitatearekin kontzientzia zabaltzen hasi den moduan, energiarekin jarra berdina bultzatzea da helburua.

Energia Gara eta Goiener energia berriztagarrien kooperatibako kideak izanen dira hizlariak.



Artxueta eta Beriain artean, postea.

Irabazi asmorik gabeko kooperatiba horiek, energia berriztagarriak bultzatu eta eredu energetiko berri bat lantzea dute helburu.

Izan ziren titular gehiago

Inuxente egunean publikatu genituen irakurleek bidalitako titularretako batzuk. Baina ez denak. Azken sortatxo bat ere badugu hementxe:

Bukatu da langabezia

AEK-ko Etxarri Aranazko arratsaldeko A1 mailako ikasleek

Raxoik dimisioa eman du

AEK-ko Etxarri Aranazko arratsaldeko A1 mailako ikasleek

Enpresa batzuk etorriko dira Sakanara

AEK-ko Etxarri Aranazko arratsaldeko A1 mailako ikasleek

Lan duina denondako

AEK-ko Etxarri Aranazko arratsaldeko A1 mailako ikasleek

Sakanan lana banatzeko ekimena

MANK-EK, ENPESABURUEN ELKARTEAK, SINDIKATUEK ETA LANGABETUEN BATZARRAK ESKUALDEAN LANA BANATZEKO EGITASMO BATI HELDUKO DIOTE, OTSAILETIK AURRERA

Raf Atxuri

Etxarri Aranatz



Ehundik gora etxarriar eta udalean ordezkaturako 3 alderdietako ordezkariak izan ziren bilkuran. ERKUDEN RUIZ BARROSO

Emakumeenganako indarkeriari ezetz esateko bildu dira etxarriarrak

Etxarri Aranazko udaletxeko lan-kide batek haren senarrarengandik jasaten duen indarkeria salatzeke elkarretaratzea egin zuten Etxarri Aranazko Udalak, udal langileek, udaleko Emakumeen Batzordea eta Etxarriko Bilgune Feministak, aurreko asteazkenean. Azaldu zutenaren arabera, ez da lehenengo aldia emakume horrek senarrarengandik indarkeria jasaten duela, eta "zoritzarrez" ez da Etxarri-Aranatzen indarkeria jasaten duen emakume bakarra. Hortaz, plazan bildu ziren emakumeak babesa emateko eta genero indarkeriaren aurka

"borrokatzeko".

"2012an bost erailketa izan ziren Euskal Herrian", adierazi zuten Bilgune Feministatik. Genero indarkeria eremu pribatutik publikora pasatu da eta emakumeenganako edozein indarkeria salatu behar dela adierazi zuten. Patriarkatuak sortzen duen egoera da genero indarkeria. Izan ere, gizonak nagusitasun egoera batean dagoela pentsatzen du, eta emakumearengan menperatzen du. Emakumeak jasan behar dituen indarkeria motak hamaika direla eta gizartea eraldatu behar dela adierazi zuten.

BUJANDA
okindegia

bai

Tel.: 948 467 503
Kale Nagusia 31, OLAZTI

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotegia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es

Zergatik ez duzu...

Iana zure kabuz sortzen?

CITROËN C-ELYSÉE BERRIA.
4.000.000 KM-TAN TESTATUTA

CITROËN prefere TOTAL

CITROËN C-ELYSÉE VTI EXCLUSIVE 10.500€*-TAN
EKIPAMENDU GUZTI HONEKIN:

- Eskuzko klimatizagailu
- Connecting Box (Bluetootha, audio sarrera eta USBa)
- ABS, ESP, larrialdietarako frenatzeko laguntza
- Abiadura mugatzaile eta erregulatzaile
- 16"-ko aluminiozko lllantak
- Gidari eta bidaiari airbagak, aurrekaldeko albo-airbagak
- Atzealdeko geratze laguntza
- Lagunduriko norabide elektriko

ETA GAINERA 506 LITROKO MALETATEGIA.

KONTSUMO MISTOA (L/100 KM) / CO₂ IGORPENA (G/KM): CITROËN C-ELYSÉE: 4,1-6,5 / 108-151

*PSP gomendatua Citroën C-Élysée VTI Exclusive (zergak, garraioa, eskaintza eta PIVE plana barne), Plan PIVEa hiltzen duten bezero partikularrendako, jabetzan duten Citroën autoa entregatu duten erosleendako. Banque PSA Finance Sucursal en España en (Erregistro zenbakia www.orias.fr webgunean ikusgai) bitartez, gutxienez 36 hilabeteko iraunkortasunaz, 6.000€ko gutxienezko kapitala finantziatu eta AXA Seguros Generales S.A. y de Seguros y Reasegurosekin seguru kontratatzen duten erosleentzat. Eskaintza hila arte bukaera arte eta partaide diren saltokietan. Eskaintza ez mugarria. Kontsultatu baldintzak www.citroen.es-en.



>> Altsasu

44 kintoak



Neskalak: Maialen Apestegua Diego (erregina), Miren Barbero Agirrebengoa (erregina-ordea), Miren Aldasoro Lezea, Idoia Moreno Gonzalez, Laura Olmos Aristorena, Gixane Viedma Perez, Jone Rubio Mazkarian, Ane Moreno Gonzalez, Ainara Salgado Gomez, Andrea Jimenez Claver, Helena Zufiarre Ganuza, Igone Imaz Arguelles, Naroa Diaz Gonzalez, Erkuden Roa Jorge, Ainara Salgado Galan, Alazne Pascua, Ainhoa Saavedra Letona, Jaione Diaz Mazkarian eta Leire Mazkarian Bergera. **Mutilak:** Iker Diaz Arce (errega), Imanol Reparaz Escudero (errega-ordea), Yerai Perez de Villareal Borrega, Ruben Barroso Delgado, Jon Artigas Lopez, Oihan Arnanz Ziordia, Unai Pelaez Diaz, Imanol Martinez Marquez, Julen Paniagua Amillano, Iosu Guinea Jimenez, Peio Bengoetxea Urdaniz, Julen Calvo Notario, Iban Chaparro Alfaro, Jon Amaro Mazkarian, Jon Cid Perkaz, Mikel Madinabeitia Bergara, Mikel Corchero Fortuna, Jon Kepa Bengoetxea Irigoien, Beñat Zelaia Barandiaran, Aratz Urrizola Ortigosa, Aitor Morcillo Zufiarre, Adrian Senar Oiarbide, Julen Agirrezabala Uharte, Adrian Claver Alba eta Ander Urrestarazu Cerdan.

Kintoen ospakizunerako gutxi gelditzen da

Altsasuko kintoen erregeak eta erreginak aukeratu dituzte

Ilbeltzaren 6, Errege eguna, egun berezia izan zen Altsasun aurten 18 urte betetzen dituzten neska eta mutilentzako. Urtero bezala Altsasuko udaletxean bildu ziren kintoen erregeak eta erreginak aukeratzeko. Garazi Urrestarazu alkateak banatu zituen kartak. Iker Diaz Arcek hartu zuen kartetatik lehengo erregea eta laster iritsi zen bigarrena, Imanol Reparaz Escudero hartu zuena. Nesken kasuan Maialen Apestegia Diegori egokitu zaito kintoen erregina izateko ardura. Miren Barbero Agirrebengoa erregina-ordearen laguntza izango du. Azkar ateraz ziren 2013ko kintoen erregeak eta erreginak.

2013ko kinta 44 kintoz osatuta dago; 19 neska eta 25 mutil. Astelehenean hasi eta otsailaren 1a bitartean jota, porrusalda eta zortzikoa entseatuko dute Burunda

pilotalekuan, 21:00tik 22:00ra. Juan Cruz Bengoetxea Saez de Maturana eta Andoni Beramendi dira irakasleak. "Jota da gehien kostatzen zaiena", adierazi du Bengoetxeak. Ospakizuna Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an, hasi eta otsailaren 9an amaituko da.

Berdintasuna

Aldaketak izango dira aurtengo Altsasuko kintoen ospakizunean. Duela sei urte neska eta mutilen berdintasuna lortze aldera neskek zortzikoa plazan dantzatzen hasi ziren. Ospakizunean berdintasun osoa lortzeko, aurten, neskek zein mutilek otsailaren 5ean eskatuko dute dirua altsasuarren artean. Ohituraren arabera neskek Santa Ageda bezpera egunean ateratzen ziren eta mutilek otsailaren 5ean. Egun berean saltzen dituzten opilak, orain arte nesken eskuetan zegoen lana, elkarrekin egingo dutela adierazi du Bengoetxeak; hala ere, aldaketen nondik norakak zehaztu behar dituzte oraindik.

Udal eraikinak kinto bazkariarako erabilgarri

Hilaren 25eko 14:00ak baino lehenegin behar da eskaera lortia kultur gunean

Pasa den urtean hasi zen Altsasuko Udala Santa Agedako ospakizunetako bazkarietarako udal egoitzak eskaintzen. Kintada batek baiezkota eman zion eta Gure Etxean bazkaldu zuten. Herrian bertan majo bazkaldu zuten, inora mugitu behar izan gabe. Egoitzaren garbitasunaz besterik ez zuten arduratu behar izan.

Aurten otsailaren 9an izanen dira Santa Ageda ospakizunak eta kinto bazkariak herrian egitea bermatu luke udalak. Kinto bazkariak herrian bertan eginda eguerdiko poteoa luzatu eta festa bera indartuko litzatekeela uste dute udalean eta horregatik egin dute eskaintza.

SAKANA

Frantzian autokonpostatze esperientziak ezagutzen

Sakanako Mankomunitateko 3 langile (Aitor Karasatorre, lehen-dakaria, Jon Estonba informatazaila, eta Mikel Navarrok, komunikazio teknikaria) aste honetan Frantzia mendebaldeko La Roche-sur-Yonen egon dira. Herri horretan 10 urte daramate autokonpostatze eta auzokonpostatze esperientziak praktikan jartzen.

Egitasmo "eraginkorrak" ezaugu dituzte Mank-eko kideek Frantzian. Herritarrek larunbatero eramaten dituzten euren hondakinak udalaren gune batera. Han bakoitzak berea pisatu egiten du eta gero ilara batean uzten du konposta dezaten. Urtean bitan, egindako ekarpenaren arabera herritarrek konposta

jasotzen dute, landare edo baraztetzarako.

Auzokonposta adibide bat ezaugutzeko aukera ere izan dute Mank-eko kideek. Hainbat herrietan etxola bat dago, 160 pertsonen konposta egiteko aukera ematen diena. Asteazken zehar hondakin organikoa etxeko ontzi batean jaso eta gero larunbatetan etxolara eramaten dute. Konposta egiten denean etxola desegiten da auzokideek haien ahalegina ikus dezaten. Auzotarren arteko harremana hobetu dela jakin dute Sakanatik joandakoek. Mank-eko ordezkariak ikusi dute herritar gehienek parte hartzen dutela egitasmoan. Gainera, usainik ez duten guneak direla ere azaldu dute.

>>

Bilboko bidea, presoek eskubideen ale

Makina bat sakandarrek hartuko dute larunbatean Bilborako bidea, Herrira mugimenduak presoek alde deitutako herri mobilizazio orokorrean parte hartzeko. Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea. Euskal presoak Euskal Herrira leloa izanen du biharko manifestazioak. Espainia eta Frantziako estatuei urratsak emateko ere eskatuko die.

Herrira-eko kideek diotenez, "denen artean bake egoera justu bat eraikitzeak aukera berriak zabalik dira Euskal Herrian". Hainbat gertaerak "euskal gatazka konpontzeko bidea ireki" dutela ere ziurtatu du eta gatazka sorturiko ondorio guztiak konponduak izan behar dutela nabarmendu dute.

Biharko mobilizazioekin presoek dagozkien oinarritzko giza esku-

bideak errespetatuak izatea eskatuko dute. Hau da, haien Euskal Herriratzea. Gainera, gaixotasun larriak dituzten presoak libre uztea eskatuko da. Horrekin batera, espetxe zigorren luzatzearekin bukatzea eta bizi osorako espetxe zigorra dakarten neurrien derogazioa eskatuko da. Azkenik, presoek giza eskubide guztiak errespetatzea aldarrikatuko da Bilbon.

15 autobus

Arakil, Irurtzun, Basaburua, Ultzama 3, Lakuntza 1, Arbizu 2, Etxarri Aranatz 3, Bakaiku, Iturmendi eta Urdiain 1, Altsasu 3, Olatzagutia 2.

Guaixe erakusleiho lehiaketa

Non daude aste honetako Guaixearen azalak?

Bilatu Beleixeguaixe txartela duten Sakanako komertzioetako erakusleihoetan Guaixearen asteroko azala

Hilabete akaberran gutxienez Guaixea egon den 3 komertzioen izena bidali

zorion@guaixe.net helbidera edo **Bierriken bulegora** ekarri

Foru plaza 23, Altsasu

Saria Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea



SAKANA

Eskubideak defendatzeko Inasako langileek plataforma sortu dute

Desegitea eragotzi, itxieraren errudunak bilatu eta pentsio planaren defentsa eginen du

56urteren ondoren lantegiak ekoizteari utzi zion, Bavaria Industrial Kapital AG arrisku-kapital enpresa alemaniarrek eta Santiago Gonzalez Berganzones hala erabakita.

Haien eskubideak defendatzeko plataforma sortu dute Inasako langile ohiek. Hiru helburu dituzte. Lehenik lantegia desegitea eragotzi nahi dute. Oso zail ikusten dute berriro zabaltzea, baina makinek barruan jarraitzen duten bitartean beti aukera izanen da. Alfonso Torresek eta Fernando Carrionek esan digutenez, kooperatiba bat ez da bideragarria. Bazkideren bat beharko litzateke, edo enpresa har-

tuko lukeen inbertsiogileren bat.

Auzibidea

Bigarren helburua da itxieraren errudunen kontra jotzea. Langile ohiek "ardurak" eskatuko dituzte, haien iritziz "Inasak ez baitu krisiak itxi, Baikap-en espekulazioak baizik". Horregatik, langileek notario aurrean abokatu batzuei boterea emanen diete haiek ordezkatu eta auzibideak jorra ditzaten.

Pentsio plana defendatzeko helburuz ere ariko dira langileak, Carrionek azaldu digunez. Inasakoa 3 urtero balioa handitzen da. Langile guztiei eragiten die, baita aurretik atera zirenei ere. Izan ere, Baikap enpresaren asmoa da diru



Pasa den urteko agorrilean utzi zioten lanera joateari Inasako 168 langileek.

kopuru bat ordaintzea eta langileak pentsio planaz ahaztaraztea.

Inasako langileek, gainera, kaleratze kalte-ordaina ordaintzeko Gonzalezen xantai bati menegin behar izan zioten: pentsio planaren osagarriaren

inguruko salaketarik ez jartzea.

Lehiaketa

Enpresa hartzekodunen lehiaketan dago eta otsailean haren inguruan zer bait jakitea esperoda. Haiek lehiaketan hartzekodun gisa aur-

keztuko dira. Enpresa desegiteko enkantea egonen da. Inork eskaintzarik ez egitea eta likidazio prozesuan, Baikap-en eskutatik kanpo, lantegia martxan jartzeko interesa duen inor agertzea da jardueraren mantentzeko aukera ia bakarra.

Olatzagutia

26 egun gose greban, Marin sendo

Heldu den ostegunean dute langileak eta enpresak adiskidetzeko ekitaldia

Abenduaren 17az geroztik Portland-eko sarrerako zubian gose greba egiten ari da Epifanio Marin. Osasunez baino animuz sendo dago Marin. "Konbentzita nago. Egin didatenak ez du izenik eta aurrera egiteko indarra ematen dit". Cementos Portland Valderrivas (CPV) talderako Madril enpresaren enplegu erregulazio espedientearen ondorioz zuzendaritzak Marin palista lanetik garbiketa lanetako 3. mailako ofizial postua izatera pasarazi nahi izan zuen, %40ko soldata jaitzieraekin.

Horren kontra protesta egiteko hasi zuen gose greba Marinek, bere lanpostua berreskuratzeko edo lantegitik irteera duina lortzeko. Izan ere, Marin porlandegian egon den 43 urteetatik 23tan langileen ordezkari izan da ELA sindikatuarekin eta enpresak orain hartu duen erabakiaren atzean mendekua ikusi du. Marin en egoera berean daude sindikatu bereko 3 langile gehiago eta LABeko bat.

ELAko kideak alferrik saiatu dira zuzendaritzarekin harremanetan jartzen. Enpresa batzordean dauden sindikatuko hiru kideak ere 4 egunez Marinekin batera baraualdia egin zuten, elkartzarekin. Enpresa batzordeak adierazpenik ez du egin. Bitartean kaleratzearen inguruko auzibideak aurrera segitzen du. Heldu den ostegunean Marin eta enpresa epaitegian bilduko dira, adiskidantza ekitaldian. Orduan akordioa lortzen ez badute epaiketa izanen da.



Epi Marin etengabe bisitak hartzen ari da.

358 babes

Internet bidez Marini babesa azaltzeko kanpaina abiarazi duten haren alabek eta sinadura kopuru hori lortu dute. Olatzagutiko porlandegiko giza baliabideen zuzendariari zuzendutako gutunean eskatzen da hartutako erabakia berriro aztertzea: "orain arteko baldintzetan bere lanpostuan

hartzea edo kaleratze baldintza duinak negoziatzea".

Bitartean, egunero senide, lagun eta elkartzasuna adierazi nahi dioten makina bat jenderen bisita jaso du Marinek. Gose greba eramangarriago egiteko lagunek eta lankideek autokarabana bat lortu dute harendako eta han jarraitzen du, bere ideietan tinko.

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

Altsasu

ADEk gabonetako lehiaketaren sariak banatu ditu

"Zer da Olentzero zuretzako?" galdera erantzun behar zuten Altsasuko Dendarien Elkarteko (ADE) dendetara joaten ziren 5 eta 10 urte bitarteko haurrek. "Beti helduentzako gauzak antolatzen ditugu eta, oraingoan, umeak protagonistak izatea nahi izan dugu". Lehiaketan parte hartu zuten ume guztien artean zozketa bidez sei finalista ateratu zituzten: Saioa Guirado, Itziar Anton, Miren Murua, Jon Navarro, Oier Gastesi eta Oihan



Saritutako guztiak.

Goikoetxea Ziordia. Eskolako materialez osatutako lote bana irabazi zuten. Saria urtarrilaren 2an jaso zuten Arkatz liburu-dendan.

SAKANTZEN

2. LAN JARDUNALDI IREKIA
SEGUNDA JORNADA ABIERTA DE TRABAJO

URTARRILAK 19 DE ENERO
ETXARRI ARANAZKO KULTUR ETXEAN

10:00 AMARRA / NIKI
ZER DA SAKANTZEN SAREA?
NOLA DAGO? NOLA DAUDE LAN TALDEAK?
¿QUE ES SAKANTZEN? ¿CÓMO ESTÁ LA RED? ¿CÓMO ESTÁN LOS GRUPOS?

10:30 TALEARRA
KOOPERATIBA BAT NOLA SORTU
ETA BIDERAGARRITASUN PLAN BAT NOLA EGIN
¿CÓMO CREAR UNA COOPERATIVA Y COMO HACER UN PLAN DE VIABILIDAD

11:15 KAFEA - PASTAK
11:45 TALEARRA
MUSIKA - ARTEA MÚSICA - ARTE: KEROBIA & DORA SALAZAR
ENERGIA BERRITAGARRIAK - NEKAZARITZA EKOLÓGIKOA
ENERGÍAS RENOVABLES - AGRICULTURA ECOLÓGICA. ESP & PIRXO LAKUNTZA
KIROLA + TURISMOA DEPORTE + TURISMO: MUGAÍPE
ARLO SOZIALA ÁMBITO SOCIAL: REAS

13:00 AMARRA
BRAINSTORMINGAREN EMAITZAK
RESULTADOS DE LA LLUVIA DE IDEAS
LAN TALDEAK OSATU. CREAM GRUPOS DE TRABAJO

INFO • WWW.SAKANTZEN.ORG
SAKANTZENSAREA@GMAIL.COM



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es



**Miguel Angel
Mazkian San Roman**

Gure artean beti

Zure koadrila



**Maria Angeles
Sanz Aizpun**

Ez die betiko garei onenak,
azken finien izeki hutsek ga,
ekaitzan ostien heldua barie,
ta lasai Andrea,
maitasunez zu onduen eingo diau bidie.

Zu launek, Andrea



Felix Rodriguez Saez

Beti libre izan nahi zenuen,
orain, bazara.

Agur

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 7an hil zen eta familiaratean erraustu.



Julia Mercero Lizarraga

II. urteurrena

Hain maite izan zaitugun zure senarra,
seme-alabak eta bilobak, beti gogoan
izango dugu guganako izan duzun goxotasuna,
borondatea eta maitasuna.

Beti egongo zera gure bihotzetan.
Muxu handi bat eta egun handira arte.

Unanu, 2013ko urtarrilak 11.



M^a Angeles Sanz Aizpun

Gu tartien beti
yonen za.

Zu familiye

Etxarri Aranatz

Felisa Urmeneta Maiza

2013ko urtarrilaren 9an hil zen, 83 urte zituela

Eskerrak une hauetan
gure ondoan izan zareten guztiei

Bere familia

Etxarri Aranatz

JAIOTZAK

- Nahia Zamarrón Candelas, abenduaren 21ean Altsasun.
- Iban Galeano Martin, abenduaren 27an Altsasun.
- Arturo Jimenez Hernandez, abenduaren 27an Olaztin.
- Anuk Gartzandia Aizpurua, abenduaren 29an Olaztin.

HERIOTZAK

- Francisca Ezkerra Lakuntza, abenduaren 24an Lizarragan.
- Juan Iriarte Berastegi arbizuarra, ilbeltzaren 3an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

keta-azkarrak. 5€ bikoteko. Saria bi gazta.

Zientzia eta teknologiaren XI. Elhuyar Olinpiada. DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleei zuzenduta dago. Izena emateko epea zabalik dago. Informazio gehiago Nagore NARBART, Marketing saila, 943-36 30 40 telefonoan, n.narbarte@elhuyar.com eta www.elyuhar.com helbideetan.

Oinez - San Fermin ikastola. San Fermin ikastola dei egin nahi die etortzerik izan ez duten euskaltzale guztiei euren laguntza emateko www.nafarroaoinet.net, Laboral: 30350145661450044110, Rural: 30080077140703177022, CAN: 20540082109123939260, Kutxa: 21010970010012925384.

Zientzia eta teknologiaren. Dibulgaziorako 2012ko CAF-Elhuyar sariak. Aurtengo edizioan kategorია berria izango du sariketarak: Zientzia gizaratean sorkuntza-beka. Lanak aurkezteko epea 2013ko urtarrilaren 31ra arte dago zabalik. Informazio gehiago: cafelhuyarsariak.elhuyar.org.

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Etxea salgai Etxarri Aranatz. 170m karratu 3 solairutan banatuta. Garaje handia beheko solairuan. Prezioa 210.355 €. Telef: 645- 73 67 84.

Oparitutakoak

Hilabete bateko txakurkumeak oparitzen dira. Iltsuak, arkakusodunak, benetan zorrigarriak. Telef: 626- 14 85 56.

Urte bateko Golden Retiever txakur ar bat oparitzen da ezin zaiolako zaindu. Txipa eta kartila eguneratua. Telef: 646- 29 47 98.

Ikastaroak

AESek ikastaro hauek antolatu ditu.

"Egitasmoak kudeatzeko tresnak", urtarrilaren 14tik otsailaren 13ra, 30 ordu. "Lan erreforma eta bere inplikazioak enpresan" urtarrilatik 31tik otsailaren 14ra; "Komunikazio eraginkorra bezeroarekin" otsaila-martxo; "Logistika eta stocks: kudeaketa" otsaila-martxo; "Sare sozialak enpresan eta on line erreputazioa", otsailaren 19tik martxoaren 21era, 30 ordu. "Arazoen konponbideak eta Windows 7ren optimizazioa", otsailaren 4tik martxoaren 6ra, 30 ordu.

Harria lantzeko tailerra Etxarri Aranatz. Urtarrilak 12, 19, 26 eta otsailak 4 (luzatu daiteke). Dohainik. Izena emateko kultura@etxarriaranatz.com, 948- 46 09 30 eta udal bulegoan.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

UGTk ikastaro hauek antolatu ditu.

"Garabiarako langilea", urtarrilaren 12tik otsailaren 2ra; "Soldadura" urtarrilaren 28tik martxoaren 6ra; "Eskorga jasotzailea gidatzeko" otsailaren 16tik apirilaren 16ra; "Planoen interpretazioa" martxoaren 4tik 21ra; "Testu-tratamendua" martxoaren 9tik apirilaren 20ra; "Lehengaien manipulazioa" apirilaren 2tik 29ra; "Eskorga jasotzailea gidatzeko" apirilaren 6tik maiatzaren 4ra; "Soldadura TIG" maiatzaren 4tik 25ra (Iruñean); "Elektrezitate 1" apirilaren 8tik maiatzaren 20ra eta "Excel aurreratua" maiatzaren 6tik 23ra.

Lehiaketa

VII. Mikro-ipuinen lehiaketa. Pamiela argitaletxeak eta Euskara Kultur Elkargoak antolatutak.

Nafarroa osoan D eta A ededuetako maila guztietan ikasten duten ikasleei zuzenduta. Idazlanak onartzeko epea 2013ko urtarrilaren 31a arte amaituko da. Informazio gehiago: www.euskara-kultur.org/eus/arauak-2012

Polindromo lehiaketa deitu du AEDK.

Polindromoak: aurretik atzera naiz atzetik aurrera, berdin irakurtzen den hitza edo esaldia. Epea: otsailaren 15a. Informazio gehiago www.aedekarte.com

Oharrak

Kattuka haur eskolak antolatuta. Kafe tertulia "Nire haurrak ez du jan nahi". Urtarrilaren 22an arratsaldeko 17:00etan doan eta zabalik. 948-56 70 09, kattukahaureskola@gmail.com

Saskiaren saritua. San Donato eskolako Guraso Elkarteak antolatutako goizeko gelarako saskiaren saritua 147 zenbakia izan da eta saritua Sara Beloki.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Pikuxar Mus Txapelketa azkarra. Hilabetearen azken ostialetan. Gaueko 22:00etan. Apuntatu ordu bat lehenago. Partidak 2 txikotara, eliminatoria. www.blogak.com/irurtzuneuskaraz/pikumus-txapel

Atletismoa

Igandean Altsasuko 31. Krosaren txanda

ATLETA FEDERATUEK HARTU AHAL DUTE PARTE. 10:00ETAN NAFAR KIROL JOLASEN LASTERKETAK JOKATUKO DIRA, 12:45EAN EMAKUMEEN KROSA (5.750 M) ETA 13:15EAN GIZONEZKOENA (7.490 M)



Altsasuko probak Nafarroako Beteranoen Kros Txapelketa erabakiko du.

Dantzaleku Sakana klubak hainbat entitate eta babesleren laguntzarekin antolatuta, ilbeltzaren 13an, igandean, jokatu da Altsasuko 31. Krosa Dantzalekuko paraje ederretan. Bertan federatuta dauden kategoria ezberdinetako korrikalariak hartuko dute parte. Aldi berean, Altsasuko proba Nafarroako Beteranoen Kros Txapelketa izango da. Hau da, bertan aritzen diren beterranoen artean erabakiko da nor diren Nafarroako beterranoetan onak. Antolakuntzak 150 korrikalari inguru espero ditu, Nafarroako elite mailakoak tartean.

Hasteko Nafar Kirol Jolasak
Helduen probarekin batera, kate-

goria txikiko Nafar Kirol Jolasen krosa jokatu da Altsasun igandean. Iaz 212 haur inguru aritu ziren, baina iganderako eguraldi txarra iragarri dutenez, kopuru txikiagoa espero da. Haurren probak 10:00etatik aurrera jokatu dira. Ondoko kategoria lehiatuko dira: benjaminak (700 m), ki-muak (neskak 1.200 m, mutilak 1.700 m), haurrak (neskak 1.700 m, mutilak 2.530 m), kadeteak (neskak 2.530 m, mutilak 4.010 m) eta jubenilak (neskak 4.010 m, mutilak 5.750 m).

Sariak
Altsasuko Krosa irabazten duen lehen gizonezkoak Altsasuko inau-

Ibilbidea

Emakumezkoak 12:45ean aterakodira, etagizonak 13:15ean. Gizonezkoek 4 buelta eman beharko dizkiote prestatutako zirkuituari (7.490 m), eta emakumezkoek 3 (5.750 m). Eguraldikaxkarra iragarri dutenez, lohia espero da. Dantzalekuko taberna zabalik egongo da. Dantzaleku Sakana-tik 20 bat pertsona ariko diralanean dena ongi ateratzeko.

terietako momotxorroa eta txapela jasoko ditu eta lehen emakumezkoak inauterietako sorgina eta txapela. Bigarrenendako eta hirugarrenendako trofeoak izanen dira. Bestalde, Nafarroako Beteranoen Kros Txapelketa sailkatzen diren lehen hirurendako ere trofeoak izango dira. Beteranoen Txapelketa 2 mailatan bereiztu dute, bate-tik 35 eta 45 urte bitartekoak eta bestetik 45 urtetik gorakoak.

Diru-laguntzarik gabe

Dantzaleku-Sakana klubak ez du Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Atletismo Federazioaren diru-laguntzarik jaso. Laguntza bakarria Altsasuko Udalak emandakoa da. Juantxo Azurmendik adierazi digunez, gero eta zailagoa da horrelako lasterketa bat diru-laguntzarik gabe antolatzea, izena ematea dohainik baita. Horregatik babesleei eskerrak emandizkie. "Urtetik urtera diru-laguntzak murriztuz doaz eta babesleak ere behera doaz. Baina ahal dugun bitartean probak antolatzen jarraituko dugu" adierazi digu.

San Silbestreak gora

GOMEZ ETA BEREGAÑA NAGUSI ALTSASUN



Moreno 2.a Azkoienen eta Borrega 8.a Larragan

Larunbatean, Azkoiengo Erregeen Krosa jokatu zen (5 km). Javi Moreno altsasuarra bigarrena sailkatu zen, probako lehen beterranoaren saria jasoz. Larragako Erregeen Krosean, aldiz, Javier Borrega 8.a sailkatu zen.

Altsasuko San Silbestrea

Gizonezkoak:

1. Tasio Gomez 16:10
2. Javier Borrega 16:16
3. Alberto Martinez 16:20
4. Javi Moreno 16:32
5. Urko Berdud 16:40
6. Ibai Huarte 16:42
7. Israel Arbizu 16:16
8. Juan Carlos Gomez 16:48
9. Juantxo Arregi 16:57
10. Aritz Pellejero 17:19

Emakumeak:

1. Maite Beregaña 20:25
2. Maite Ares 20:57
3. Maitane Txueka 21:37
4. Amaia Zelaia 22:47
5. Lourdes Oiarbide 22:47
6. Raquel Agirre 23:53
7. Marta Diego 24:11
8. Leire Otaegi 24:33
9. Ane Cantero 24:41
10. Anne Claver 24:43

*Oharra: Soilik lehendabiziko 10ak publikatu ditugu. Dantzaleku-Sakana igorritako sailkapen osoa www.guaixe.net-en dago ikusgai.

Urteko azken egunean ia 400 korrikalari parte hartu zuten Altsasuko San Silbestrean. Urterik urtera gora egiten du lasterketa herriko honen. Horren isla, aurten 37 neska-mutikok parte hartu zuten

kategoria txikietan eta 355 proba nagusian.

Giro polita zegoen lasterketan eta baita proba jarraitza eta animatza hurbildu ziren ikusleen artean. Korrikalariak Altsasuko kaleetan prestatutako zirkuituari 3 itzuli eman dizkioten, 5 km osatu arte. Azken itzulira arte batuta joan zen lasterketa burua, baina hor Tasio Gomez gipuzkoarrak eraso egin zuen eta Zumarragako bakarrik heldu zen helmugara (16:10). 6 segundora sartu zen Javier Borrega altsasuarra (16:16). Emakumezkoetan Maite Beregaña uhartearra nagusitu zen (20:25), Maite Aresen (20:57) eta Maitane Txuekaren (21:37) aurretik.

Altsasuko San Silbestre beterranoena da, aurten 34. edizioa bete zuen. Mario Lopez de Urdal memoria da, lasterketa 17 aldiz irabazi zuen atleta altsasuarraren oroimenez. Aurten ere Iker Borrega omen-dunahi izan zuten, 14 urterekin udan zendu zen gaztea. Bere lagunek aurrekua dantzatu zioten eta bere osaba Javi Borregaren helmugara tzea oso hunkigarria izan zen.

CENTRO ESTETICO DEPORTIVO Y NUTRICIONAL

Jardueren egutegia

Orduak	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirra	Larunbata
9:30-10:30	G.A.P.	SABEL DANTZA	G.A.P.	SABEL DANTZA		9:00-14:00
10:30-11:30	BOSU eta BODY PUMP	MINARENDAKO SOINKETA	BOSU eta BODY PUMP	MINARENDAKO SOINKETA		TAICHI-CHI-CUM
15:00-16:00		SABEL DANTZA		SABEL DANTZA		
17:00-18:00		SABEL DANTZA		SABEL DANTZA		
18:00-19:00	17:30-18:30 BOSU eta BODY PUMP		17:30-18:30 BOSU eta BODY PUMP			
19:00-20:00	18:30-19:30 AEROBICA		18:30-19:30 AEROBICA			
20:00-21:00		19:15-20:15 BIKAS TALEERA		19:15-20:15 BIKAS TALEERA	ELIKADURA HITZALDIK	
	BODY PUMP		BODY PUMP			

TXANDA ESKATU
948 460 993 / 661 541 431
www.xalok.es
Burundabide 14 - Etxarri Aranatz



Helduen kategoriako irteera, Olaztikoko San Silbestrean.

Olaztikoa Raul Audikanarendako

Giro polita eta inoiz baino korrikalari gehiago izan ziren Sutegik antolatutako Olaztikoko San Silbestrean. Guztira 109 korrikalari aritu ziren, 4 kategoriatan banatuta. Aurten zirkuituan aldaketak egin ziren, harrera onarekin.

7 urte bitarteko kategorian 38 korrikalari aritu ziren (300 m) eta Iker Gomez eta Leire Agirre nagusitu ziren. 8-11 urte bitartekora 26 animatu ziren. Iker Igelmo eta

Maitane Vilariño gailendu ziren. 12-15 urte bitarteko kategorian 10 gaztetxo aritu ziren (1200 m) eta Lander Bados eta Ekiñe Razkin nagusitu ziren. Azkenik, 16 urtetik gorako kategoria nagusian 35 korrikalari aritu ziren, 14 emakume, azpimarratzeko datua. Emakumezkoetan (3600 m) Teresa De Celis izan zen azkarrena eta gizonezkoetan (4800 m) Raul Audikana olaztiarra.

CARNICERIA I. ARREGUI
HARATEGI ETA URDAITEGIA

tel. 948 576 067

Satrustegi, Hiriberri, Ihabar eta Irañetan zuzeneko salmenta

Herriko plaza z/g LAKUNTZA

Txirrindularitza

68 txirrindularik Urbasan despeditu zuten urtea

PATXI ZIA IZAN ZEN AZKARRENA

Sociedad Deportiva Alsasua (SDA) antolatutako 30. San Silbestre Bizikleta martxan 68 txirrindularik hartu zuten parte. Lehenik eta behin zikloturistek hartu zuten irteera, 38 txirrindulari guztira, modulasian Altsasutik Urbasara igoz. Handik ordu erdira proba lehiakorra hasi zen. 30 txirrindulari irten ziren. Sailkapen oso estuan, Diario de Navarra BTT Openeko irabazle Patxi Zia izan zen azkarrena (17:32), Luis Teodoro Casabal (17:33) eta Victor Etxeberriaren (17:34) aurretik. Etxeberriak erorikoa izan zuen Urbasako bihurtze batean. Bestalde, lehen altsasuarra Mikel Sarasola izan zen.

Bukaeran txirrindulari guztiak oroigarria jaso zuten SDAren egoitzan. Bertan egin zen sari ematea.



Patxi Zia tropeletik tiraka Urbasan gora. UTZITAKOIA

Saskibaloia



CBASKek osasun bikaina dauka. 88 jokalarik dauka taldeak. CBASK

CBASKen aurkezpena

Altsasuko Saskibaloi Taldeak, CBASKek, 2012-2013 denboraldiko taldeen aurkezpena egin zuen abenduaren 29an. CBASK taldeak guztira 88 saskibaloi jokalarik ditu, 9 taldeetan banatuta. Gehienek Nafar Kirol Jolasetan parte hartzen dute. Ondoko taldeak dira: emakumezkoen seniorra, emakumezkoen kadetea, gizonezkoen juniorra, emakumezkoen eta gizonezkoen

haur mailako taldeak, emakumezkoen aurre-infantil mailak eta gizonezkoen eta emakumezkoen mini mailak. CBASKetik gaineratu dutenez, hurrengo denboraldian benjamin mailako talde bat lehiatuko da Nafar Kirol Jolasetan. Halaber, junior talderako entrenatzailea behar dutela adierazi zuten.

Aurkezpena Juanjo Marin Memorialean egin zuen CBASKek.

Juanjo Marin saskibaloi jokalarik altsasuarra zen, 2003an auto istripu batean zendu zena. Aurtengo memorialean Cementos Portland Valderrivasi 27-54 irabazi zion Aranguren Mutilbasket taldeak. Bertan jokatzeko du, hain zuzen ere, Marin zenaren seme Danielek. Eta beste partidari, CBASKeko juniorrek 47-53 galdu zuten Araiko Alipendiren kontra.

Mendia

Urteari agurra eta ongi etorria

Gure mendizaleek urtearen akabera eta ongi etorria mendian ospatu dituzte. Gainera, eguraldi onaren laguntza izan dute. Urteko azken egunean Altsasuko Mendigoizaleek eta Olaztiko Sutegiko mendizaleek Aizkorri aldera jo zuten. Aldiz, Lakuntzako Zabalarte klubak deituta, makina bat lakuntzar Eskuarrira eta Lakuntzako bordetara igo ziren, bertan hamaiketako bikaina eginez. Piku-

xarrek eta Iratxok deituta, berriz, Irurtzun aldetik Ergako Trinitatera abiatu zen talde jendetsu bat.

Bestetik, Sakanako Mendizaleak taldeak deituta, Errege Egunean Beriain gainean egin zuten topo mendizaleek. Ez ziren kantutak falta izan. Altsasuko Mendigoizaleek urteko lehen igandero egin ohi dutenez, Urbasako Bargainera jo eta bertan hamaiketako hartu eta festatxo egin zuten.



Lakuntzarrek Aralarra jo zuten, Eskuarrira eta bordetara. J. GAYA



Erga Trinitatean despeditu zuten urtea irurtzundarrek. URKO



Mendizaleak Beriainera bidean, Errege egunean. PEDRO MARI GONZALEZ REMIRO

JUANLUZENEAA
SAGARDOTEGIA

tel. 948 604 571 **ODERITZ**

ilbeltzaren 12tik
maiatzaren 4ra arte

ilbeltzak 14
TXOTX!

kultura >>

Etxepare, haurrentako album ilustratuak sortzeko sariketa

Maiatzaren 31ra arteko epea dago lanak aurkezteko

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, Nafarroako beste hainbatekin batera, Etxepare saria antolatu du. Irudi eta testu labor osagarriak dituzten eta istorio bat kontatuko duten albumak aurkez litezke lehiaketara. Lanak euskaraz idatziak izan behar dute, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak.

Formatu aldetik, antolakuntzak askatasuna eman die sortzaileei, beti ere, 20x21 cm baino txikiagoko lanak ez badira. Testuek gehienez 4.000 karaktere izan behar dituzte (zuriuneak barne). Lehia-



kideek lan originala eta 4 kopia (pdf formatuan) aurkeztu beharko dituzte. Plika sistema erabiliko da lanak Leitzako Udaleko euskara zerbitzura bidaltzerakoan eta egileek haien datuak eta harremanetarako bidea eman beharko dute. 5.000 euroko sari bakarra banatuko da eta Pamiela argitaletxeak argitaratuko du.

Tokia dago hip hop ikastaroan

Gaur hasi eta ostiralero, martxoaren 22ra arte, Altsasuko Intxostiapunta gazte guñeak hip hop ikastaroa hartuko du. 17:00etatik 19:00etara da ikastaroa. Guztira 20 ordu. Gazteria sailetik jakinarazi digutenez, oraindik ere tokiak libre daude. Izena eman nahi duenak 948 564 785 telefonora hots egitea eta 15 euro ordaintzea besterik ez du.

Bestalde, gazte guñe berean bihar eta hurrengo larunbatean euskal sukaldaritzari buruzko tailerra izanen da. Saio bakarrean aritu nahi duenak 2 euro ordaindu beharko ditu. Biengatik 3. Azkenik, gaur, gazte guñeak pobrezia eta gazteriari buruzko hitzaldi-tailerra hartuko du 18:00etatik aurrera. Nafarroako Gazte Kontseiluak antolatutako ekimen da.

Alegria, erretratuak eta gehiago

Musikari ezagunak eta Afrikako pertsonen irudiak osatzen dute Altsasuko Iortia kultur gunean dagoen erakusketaren muina

Pintura adierazpide gisa hartu du Jokin Alegriak, *Kalek*, dakiena delako. Bere anaia margotzen ibiltzen zen eta hari orduak begira emanez zaletu zen pinturaren. 60 bat margolanez osatutako erakusketa jarri du Alegriak Altsasun. Bi serie dira nagusi. "Alde batetik, duela 3 urte hasi nintzen musikariaren erretratuak daude eta afrikarrenak bestetik" dio.

Alegriak musikariaren argazkiak Internetetik ateratzen ditu, hantsaltzeaz ibili ondoren. Gustuko taldeekin hasten da. "Argazkia ondo ikusi behar da, bestela ezin da ongi margotu". Argazki egokia opatu ondoren jartzen da haren margozko kopia egiten. Musikari zerrenda luzearen erretratuak ondu ditu Alegriak. Eta buruan egiteko pilo bat ditu. Orain hemengo jendearekin hasi da: Bocanada, Kutxi Romero, Loqui-



llo, El Drogas, Aurora Beltran... "neskek esaten dute neska gutxi daudela. Hasieran ez zegoen ezta bat. Aurorarekin hasi naiz eta segituko dut".

Lakuntzarrak Beleixe Irratian (FM 107,3) azaldu duenez, "duela 3 urte, musikariekin hasi nintzen pastela erabiltzen hasi nintzen. Ez nuen inoiz probatu eta nahiko ongi atera ziren. Olio eginda dauden handiago batzuk eziz, musikari gehienak pastelez eginak daude".

Afrika

Kontinente horretara bisita bat egitea ere bada Iortia erakusketatik pasatzea. Makina bat pertsonen erretratuak daude ikusgai. Afrikarrak zergatik? "Halako jendea, halako begiradak, nire barruan zerbait sortzen dute. Halako jendeak sufrimendu handia du eta begiradetan ikusten da. Batzuk negarrez, gehienak tristeak dira". Koloreekin gustura gelditzen da margotzean. Olio erabili du Afrikako seriea margotzeko. "Indar gehiago ateratzen da". Afrikari buruzko liburu eta argazkiak izan dira koadroen abiapuntua.

Erretratuak egitea asko gustatzen zaiola esan digu Alegriak. "Zaila da, baina gustura nabil eta

segituko dut. Erretratuekin oso oso perfektionista izan behar zara. Bodegoiekin gustura ibiltzen naiz, pixka bat deskonektatzeko balio du". Bodegoiak eta paisaiak ere ikusgai daude hilaren 19ra arte.

Lakuntza eta Iruñean bere lanak erakutsi ondoren Altsasun dago erakusten. "Pixkanaka ia jendeak ezagutzen duen Jokin, *Kale*, halako gauzak egiten ari dela". Enkarguak ere egin izan ditu, ezagunenak. "Argazkia ekartzen didate eta denbora badut egiten ditut". Modeloarekin ere egon da, "gustura asko ikasten da horrela".

Graffiti

Alegriak marraztutako musikariak ez daude koadroetan bakar bakarrik, Lakuntzako paretetan makina bat graffiti margotu ditu musikariekin. "Orain nahiko utzia dut graffiti". Pintzelarekin, etxean, orain ordu bat, bihar beste bat... hala ibiltzen da lakuntzarra. "Baina sprayarekin hasten zarenan motxilarekin edonora joan behar duzu, han hiruzpalau ordu egon... Gustura ibili nintzen". Segitzeko asmoa du, baina aitatasun mustu berriak ez dio tarte handirik uzten. Etxean lasai-lasai margotzea gehien gustatzen zaiona dela aitortu digu.

Neguko argazki lehiaketa

FLORES
arkitektura

948 563 317
jflores25@terra.es

Iortia plaza 1-1
ALTSASU

www.arquitecturajavierflores.com

Argazki lehiaketaren oinarriak:

Parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarra aurkeztu dezake. Neguko argazkiak izanen dira. Argazkiak Sakanan eginak izan behar dute (Aralar, Andia eta Urbasa mendiak barne). Argazki digitalak bakarrik onartuko eta jpg formatoa izatea. Bierrik Fundazioak beretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendaurrean erreproduzitzen eta jakinarazten uzten dio Bierrik Fundazioari, euskarri inprimatuan, Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak martxoaren 18a baino lehen aurkeztu beharko dira Bierrik Fundazioaren Facebook profilaren bitartez edo @Guaixe twitter kontuaren bidez. #guaixeneguko aipamena eginez. Irabazleak nortzuk diren martxoaren 28an jakinaraziko da, astekarrian. Argazkiak www.guaixe.net webgunean jarriko dira ikusgai.

Ereduak sartzen

Nafarroako berezko txistorrak izen bat du

Txistor ekologikoa

Uztar industrialak - RIF - Faxa: 948 460 499 - 410334

Altsasuko eskolaniak eta Tik Tarak doinu beroak eskainiko dituzte

Bihar, ilbeltzaren 12an, larunbatean, 20:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean

Musika afro-karibearra, flamenkoa, funka eta jazzaren ikutua duen talde sendoa da Tik Tara. Zarauztarrak bihar Altsasun bisitan izanen ditugu. Baina ez dira bakarrik igoko eskenatokira. Aldamenean Altsasuko Musika eta Dantza eskolako eskolania izanen dute. Hau da, kantu ikasketak egiten ari diren 50 ikasleekin batera ariko da Tik Tara. Gainera, taldearen diskoaren grabazioan parte hartuko du eskolaniak.

Altsasuko Musika eta Dantza eskolatik jakinarazi digutenez, aurreko ikasturtean eskolaniarako beste ikuspuntu bat lantzen hasi ziren, erakargarriagoa egiteko. Horrek hainbat irakasle parte hartzea eta beste dinamika eta ekintza batzuk ahalbidetu ditu. Hizkuntza Musikaleko irakasle Amaia Ureta Tik Tara taldeko kide da eta diskoa grabatu behar zutela baliatuz haurrak egitasmoan parte hartzaile egitea pentsatu zuten.

Errepertorioa

Eskolaniako 50 kideak esperientzia bikoitza biziko dute bihar:



disco baten grabazio batean parte hartzeaz gain, talde batekin aritzeko aukera izanen dute. Ohiko errepertorioarekin batera, taldearekin abestu beharreko kantuek ikasi dituzte eta horretan lagun izan dituzte teknologia berriak. Biharemanaldiaren aurretik elkarrekin entseatuko dute eskolaniak eta Tik Tarak, dena behar bezala borobiltzeko.

niak eta Tik Tarak, dena behar bezala borobiltzeko.

Eskolaniako kideek taldearekin grabatu duten *Afro* izeneko kantuan parte hartuko dute. Gainera, *Dubula* abestia prestatu dute taldearekin batera abesteko. Tik Tarari koroak egingen dizkio eskolaniak *Oreka* kantuan. Jakina iza-

nen da gipuzkoarren emanaldirik ere. Eskolaniak koreografia lanak ere egin beharko ditu. Biharko emanaldiak bere "tarte pedagogikoak" ere izanen dituela aurreratu digute. Gainera, zentroan ari diren bateria ikasle zaharrenei (Iñigo, Hodei, Euken...) jotzeko aukera emanen zaie emanaldian.

Zabalik

Larunbateko emanaldiaz aparte egitasmoak segida izanen duen ikusteke dago. Bitartean eskolan beste proiekturen bat badute esku artean, "baina egoera ekonomikoak ez du laguntzen eta hor dugu erronkarik nagusia, erakargarriak eta autofinantzatu daitezkeen jarduerak antolatzea".

Bitartean, biharko ekimenen modukoak Altsasuko Musika eta Dantza eskolako leloarekin bat egiten dute: hezi, jostatu eta hedatu.

bazterretik

Ana Senar Lasa



Esku artean

Aurreko batean interesgarri suertatu zitzaidan liburubata aurkitu nuen eta aurkituntza hura aitzakia hartuta idatziko ditut lerro hauek. Kafetegitik iritsi berri naiz, kafesne goxoa hartu dut bi egunkari begiztatzen nituen bitartean. Eguberriak tarteko edo, ipuin elektronikoz ari zen artikulu bat irakurri zitekeen egunkarietako batean. Orrialde osoko artikulu argazki eta guzti. Biegunkarietan ipuinekoak iragaritzen zituzten argialetxeen iragarriak zeuden. Eguberriak eta larunbata izanik, honek guztiak baduzentzua. Finean, egunero jaiotzen dira produktu berriak eta behin merkaturatu daudela saltzea ezinbestekoa da aurrera egin ahal izateko. *El arenque rojo* da idatzi honen hasieran aipatu liburuaren izenburua, edo hobe esanda, ilustrazio-liburua. Marrazkiz beteriko 24 orrialde dira, idatziriko testurik ez dituztenak. Orrialde hauek parke baten sekuentzia ageri da. Parkea edozein herri zein hiritako parkea izan daiteke. Gizonezko bat bizikletan ari da; neskatila

aitak emandako liburuxka esku artean hartu eta irakurtzen ari da, ama semea eta alaba eskutik hartu eta paseoan ari da, musikaria txirula jotzen ari da, mutil batek argazkiak ateratzen ari dizkio txakurrari, mutil koxkorrek baloiarekin ari dira jolasean... Hurrengo orrialde bikoitzera pasa eta pertsonaiak bertan daude, baina aldaketak daude. Pauso batzuk aurrera edo atzera egin dute, gauza ezberdin bat egiten ari dira, aurregiko keinuak ezberdinak dira... Liburuxkaren azken orrialdean gutun-azal bat aurkituko duzue, eta honen barruan zazpi istorio gordetzen dituen liburuxka txiki bat. Ilustrazio-liburuko zazpi pertsonaia aukeratu dituegileak eta horien istorioak kontatzen dizkigu. *El arenque rojo* ordea, badagopertsonaia gehiago eta horien istorioa norberak irudikatu, forma eman, amestu eta besteekin konpartitu ditzake. Pertsonaia bezainbeste istorio dituen liburuxka honen ilustrazioak Alicia Varela eginikoak dira. Etxeko apalategian gordetzeko liburuan irengusturako, hamaika aldiz esku artera eramango duzun horietakoa.

urtamila

altsasu

RECICLART TOOM PAK

LARUNBATA 26
20:30

KONTZERTUA

ARRATOITXO PINPIRINA GLU GLU

IGANDEA 20
17:00 (+3 urte)

FAMILIARTEKO MUSIKALA

FAMILIARTEKO ZINEMA GAURKOTASUNEKO FILMAK ZINEKLUBA

 CAMPAÑILLA EL SECRETO DE LAS HADAS 13 17:00	 HOTEL TRANSILVANIA 27 17:00	 SKYFALL (+12) 4 22:00 6 20:10
 ZULOAK (+7) 11 21:45 13 20:00	 EL PROFESOR (+16) 11 22:00 13 20:10	 CESAR DEBE MORIR 16 21:45 20 20:00
 UN BUEN PARTIDO 18 22:00 20 20:10	 ARRUGAS 25 21:45 27 20:00	 LA VIDA DE PI 25 22:00 27 20:10

19, larunbata 20:30 RONDALLA ARMONÍA & TRASTEANDO

KONTZERTUAK

12, larunbata 20:30 TIK TARA & MUSIKA ESKOLAKO ESKOLANIA

KONTZERTUAK

7-19, ostirala 20:30 NO SOMOS DISTINTOS MOTXILA 21

OSTIRALA 20
DISAZA 3

ERAKUSKETAK

IPUINEN UNEA

ostirala 25
19:00
Euskara
Eñaut
Gorbea

Aldrebes keriak eta beste kontu batzuk

KULTURAREN LINEA ZENTRALA

DL HA 2016-2012

G asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 12%	euria: 47%	euria: 89%	euria: 95%	euria: 99%	euria: 97%	euria: 90%
Min: 2 Max: 10	Min: 3 Max: 8	Min: 1 Max: 9	Min: 3 Max: 4	Min: 2 Max: 4	Min: 2 Max: 5	Min: 2 Max: 6

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	16.9	-5.2	7
Altsasu	14.5	-0.4	6
Aralar	17.1	-2.4	5.8
Urbasa	16	-7	0

: ilargiaren aldia>>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
11	18	25	26

Acrylcolor SISTEMA BERRIA **KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE** **KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**

EGOKI VENTANAS PVC LEIHOAK Tel: 948 563 253 Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

Sure irudimena zure altxorra

Kalitateko eskumak, bisita haulek, karlekak, digitu eta komunikazioan adituak

GUAIXE KOMUNIKAZIOA
argi@guaixe.net
948 562 107

>> 11 galdera

Bizente Zufiarre

Aitonaren istorioak liburuen egilea

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



Elkarrizketa osorik www.guaixe.net-en.

1.- Nola sortu da liburua idazteko ideia?

Nire aitari, osabari eta ahizpari asko irakurtzeagustatzen zitzairen. Niri ezer ere ez. Nik eskola-eskapeogiten nuen, baina buru ona daukat eta dena gelditzen zait. Orduan, haiek irakurtzen zutena niri gelditzen zitzaidan. Istorio horietaz gogoratzen naiz. Jendeak esaten zidan kontatzen ditudan istorio hauek idazteko. Ilobek ere idazteko esaten zidaten. Ilobak jarri du titulua hain zuzen ere: *Aitonaren istorioak*.

2.- Noizbait liburu bat idatziko zenuela pentsatu duzu?

Ezta pentsatu ere. Baina duela urte bat inguru istripu bat izan nuen eta hanka gaizki izan nuen; etxean egon behar izan nintzen denbora luzez. Eta horrela, hasi nintzen gauzak idazten. Abesti batzuk ere egin ditut. Cruz Mari txistulariari ere abesti bat erakutsi diot: *Jentilen Kanziyoa* deitzen da. Duela zortzi urte inguru jendearen aurrean abestu nuen eta hunkituak gelditu ziren. Oso abesti polita da. Sakana osoari abesten diot.

3.- Erraza izan da liburua idaztea?

Bai. Orain zirriborro bat egin dut. Semeak ordenagailuan idatzi behar du; baina ez du denbora.

4.- Zer istorio aurkitu daitezke?

Istorio asko. Baita elizei buruzko informazioa, ingurugiroari buruz, kirolari buruz... Oso gauza politak kontatzen ditut. Adibidez, 1500. urtean gutxi gorabehera Barranta Lakuntzatik Irurtzun edo Aizkorberaino zen; Aranatz Lizarragabengoa, Arbizu, Lizarraga, Unanu eta Dorrao zen; Burunda Bakaiku, Iturmendi, Urdiain,

Altsasu, Olazagutia eta Ziordi. Aldapan gora daude, horregatik da Burunda, buruan daudelako. Orain denok batera daude eta Sakana da, eta hobe da horrela.

5.- Istorioak zuk entzundakoak dira edo liburuetatik ateratakoak?

Batzuk liburuetan daude eta beste batzuk nik entzundakoak dira. Buruan gelditu zaizkit, nire gurasoak kontatutakoak. Herri guztietatik zerbaitekin kontatzen dut.

6.- Zein urteetako istorioak dira?

1500. urteetakoak, 1600.ekoak, Alfons XII. garaikoak, Alfons XIII. Altsasun izandako kontakizun bat, baita duela gutxi ere. Adibidez, nire amonak ezagutu zituen Unanuko bi ahizpa Ameriketara joan zirenak. Buenos Airesen gangster batzuekin elkartu ziren. Oso gaizki tratatzen zituzten. Batek ume bat izan zuen, eta, azkenean, aldeegitea lortu zuen. Gangster hori portuan agertu zen eta emakumeari esan zion alde egiten bazuen semea hilko zuela. Emakumea ez zen itsasontzik jaisi eta umea bere aurrean hil zuen. Emakumea Unanura itzuli zen, eta ez zekien bere ahizpari buruz ezer.

7.- Herrietan ezagutzen diren istorioak kontatzen dituzu?

Ez. Agian oso zaharrak direnekin ezagutuko dituzte, baina gehienek ez dituzte istorio hauek ezagutzen.

8.- Belaunaldi gazteentzako aurkikuntza izango da, ez?

Bai. Hemen gertatzen zenaren aurkikuntza izango da. Urdiainen Marinerena bezala ezagutzen gaituzte. Baina jendeak ez daki zer-

gatik. Nire aitona Europako gerratean parte hartu zuen, eta Bilbotik gerratera joandako lehenengo itsasontzian joan zen. Berekin batera hainbat gizon hil ziren, baina kutxa batek irabazi zuen. Eta nik oraindik kutxa hori gordetzen dut. Urdiainen ez dakite zergatik deitzen diguten horrela.

9.- Zein gai jorratzen dituzu?

Herri guztietako istorioak, Gipuzkoakoak eta Arabakoak ere. Mendiei buruzko gauzak ere: Aralar, Andia, gure Urbasa, San Donato eta Gipuzkoako Aizkorri... Leku hauetan argazkiak egin ditugu jada. Kirolari buruz ere zerbaitekin ditut: pilota, futbola eta zezenketen buruz ere. Elizei eskaintako kapitularen bat badago. Eta gai bakoitzarekin batera txiste bat edo bi gai horri lotuta daudenak. Hizkuntzari buruz ere asko kontatzen dut. Euskara asko defenditzen dut.

10.- Jakin mina pizten du?

Begiratzen duzun ikuspegiaren arabera, asko. Izan ere Euskal Herria osorako baliagarri izan daiteke. San Pedrori buruzko istorio oso interesgarria kontatzen dut; Urbano Ijurrak liburu batean aurkitutakoa. San Pedro Nafarroako Erresumaren erdigunean zegoela dio, eta, ondorioz, Nafarroako Lehenengo Erregea bertan koroatu izan zitekeen, izan ere, ez dago istorio honi buruzko dokumenturik, nahitara erretzen zituztelako. Nork esan dezake hori ez dela horrela?

11.- Argialetxeekin bildu zara?

Oraindik ez. Semeak ordenagailuan idatzi behar du, eta orduan zerbaitekin egin ahal izango dugu.

Munduko Musikak

BIERRIKEN ALDEKO KONTZERTUA + sorpresak

IRURTZUNGO MUSIKA ESKOLA
KITUKA BURUNDI
DJEMBE TALDEA
YOUSSEF KEJJI
MAIDER ANSA

sarrerak

5 € Sarrerak: LEKU ONA tabernan, KAXETA liburu-dendan eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan

Etxarri Aranazko Kultur Etxean urtarrilaren 20an, 19:00etan

Mark, berriak gar, belexe, guaixe.net